



Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua - Helburuak lortzen.

Goi-mailako hezkuntzaz arduratzen diren ministro europarren Konferentziaren Komunikatua. Bergen, 2005eko maiatzaren 19a eta 20a.

Boloniako Prozesuan parte hartu duten herrialdeetan Goi-mailako Hezkuntzaz arduratzen garen ministrook elkartu gara ezarritako bidearen erdian lortutakoari buruzko balantze bat egiteko eta 2010. urtera bitarteko helburuak eta lehenetsunak ezartzeko. Konferentzia honetan ongiatorria egin diegu Armeniari, Azerbaijani, Georgiari, Moldaviari eta Ukrainari Boloniako Prozesuan parte hartuko duten herrialde berriak direlako. Denok uste dugu Prozesuaren printzipioak, helburuak eta konpromisoak guztiok ulertu behar ditugula, Boloniako Adierazpenean eta Pragako eta Berlingo ministro-konferentzien ondorengo komunikatuetan adierazi zenaren arabera. Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua (GHEE) 2010ean ezartzeko gure politikak Boloniako Prozesuaren bitartez koordinatzeko hartu genuen konpromisoa berresten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu herrialde parte-hartzaile berriei laguntzeko Prozesuaren helburuak abian jartzen.

I. Parte-hartzea.

Goi-mailako Hezkuntzako erakundeek, erakunde horietako langileek eta ikasleek Boloniako Prozesuan laguntzaile gisa bete duten eginkizun nagusia nabarmendu behar dugu. Prozesua praktikan jartzen bete duten zeregina zeregin garrantzitsuena da orain, beharrezko lege-aldaketa gehienak eginda daudenean, eta GHEEa ezartzeko ahaleginak egiten jarraitzea eta ahalegin horiek areagotzera bultzatzen ditugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeei Prozesuari buruz hartutako konpromisoarengatik eta onartzen dugu denbora behar dela egiturazko aldaketen eragina curriculumetan optimizatzeko, eta, beraz, ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan Europak behar dituen berrikuntzak sartuko direla bermatzeko.

Enpresak eta gizarte-eragileak ordezkatzeko dituzten erakundeek emandako laguntza eskertu nahi dugu eta espero dugu lankidetzaren areagotzea Boloniako Prozesuaren helburuak lortzeko. Era berean, Prozesuan parte hartu duten nazioarteko instituzioen eta erakundeen ekarpenak eskertu nahi ditugu.

II. Balantzea

Badakigu egindako aurrerapena garrantzitsua izan dela, Jarraipen Taldearen (BFUG) 2003-2005 aldiko Txosten Orokorrean, EUaren *Joerak IV* izeneko Txostenean eta ESIBen *Bolonia ikasleen ikuspegitik* izeneko txostenean adierazten denaren arabera.

Berlinen egin genuen bileran BFUGri eskatu genion balantze bat egin zezala, epearen erdialdean, hiru lehentasunezko alderdi hauek kontuan hartuta: zikloetako egitura, kalitatearen bermea eta tituluen eta ikasketaldien onespena. Txosten honetan ikusten da funtsezko aurrerapenak egin direla lehentasunezko hiru arlo horietan. Garrantzitsua izango da egiaztatzea aurrerapena koherentea dela parte hartzen duten herrialde guztietan. Beraz, ikusten dugu beharrezkoa dela esperientziak oraindik gehiago partekatzea jarduteko gaitasuna areagotzeko erakundeetan nahiz gobernuetan.

Titulazio-sistema

Pozgarria da ikustea bi zikloko sistema asko aplikatzen ari dela herrialde askotan. Herrialde gehienetako ikasleen erdiak baino gehiago sistema horretan ari dira ikasketak egiten. Baina oraindik oztopo batzuk daude zikloen artean sartzeko. Gainera, elkarrizketa gehiago egin behar dira, Gobernuak, erakundeak eta gizarte-eragileak inplikaturako dituzten elkarrizketak, lehenengo zikloko gradudunen enplegua hobetzeko, postu egokiak sartuz zerbitzu publikoetan.

GHEEren *kualifikazioen* esparru orokorra hartu dugu. Esparru horretan hiru ziklo daude (testuinguru nazional bakoitzaren barnean bitarteko *kualifikazioak* lortzeko aukera barne): ikaskuntzaren emaitzetan oinarritutako deskribatzaile orokorrak, ziklo bakoitzerako konpetentziak eta kreditu-tarteak lehenengo eta bigarren zikloetan.

Konpromisoa hartzen dugu, alde batetik, 2010erako GHEEko *kualifikazioen* esparru orokorrarekin bat datozen *kualifikazio*-esparru nazionalak egiteko, eta, bestetik, esparru horri buruzko aurrerapenak aurkezteko 2007an. Eskatzen dugu esparru orokorra abian jartzeari buruzko eta esparru orokorraren ondorengo garapenei buruzko txostena egitea Jarraipen Taldeak.

Nabarmetzen dugu garrantzitsua dela egiaztatzea GHEEko *kualifikazioen* esparru orokorra eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako *kualifikazioen* esparru zabalagoa osagarriak direla, hezkuntza orokorra eta lanbide-heziketa barne, Europar Batasunean ez ezik, parte hartzen ari diren herrialdeen artean ere garatzen ari denaren arabera. Eskatzen dugu Europako Batzordeak Boloniako Prozesuan parte hartzen duten talde guztiei kontsulta egitea lanak aurrera egin ahala.

Kalitate-bermea

la herrialde guztiek neurriak hartu dituzte kalitatea bermatzeko sistema bat aplikatzeko. Sistema hori Berlingo komunikatuan adostutako irizpideetan oinarrituta dago eta lankidetzan aritzeko eta sareak sortzeko maila handia dauka. Baina oraindik gehiago aurreratu behar da, bereziki ikasleen partaidetzari eta nazioarteko lankidetzari dagokionez. Are gehiago, Goi-mailako Hezkuntzako erakundeei eskatzen diegu ahaleginak egiten jarrai dezatela beren jardueren kalitatea areagotzeko, barne-mekanismoak sistematikoki sartuz eta kanpoko kalitate-bermearekin zuzenean erlazionatuz.

Kalitatea bermatzeko estandarrak eta jarraibideak –ENQAK proposatutakoak– hartu ditugu GHEEan. Kalitate-agentzia nazionalak parekoen ebaluazioa egiteko proposatutako eredia sartzeko konpromisoa hartu dugu, normalean onartzen diren irizpideak eta gidalerroak errespetatuz. Kalitate-agentzien erregistro europarraren printzipioari –berrikuspen nazionaletan oinarrituta dagoenari– heldu diegu. Eskatzen dugu printzipio hori aplikatzeko modu praktikoa ENQAK gara dezala EUA, EURASHE eta ESIBekin lankidetzan arituta; erakunde horiek txosten bat helaraziko digute Jarraipen Taldearen bitartez. Nazio osoan onartuta dauden agentzien arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratzen dugu, kalitatea egiaztatzeari edo bermatzeari buruzko erabakien elkarren onespena areagotze aldera.

Tituluen eta ikasketaldien onespena.

Nabarmendu behar dugu parte hartu duten 45 herrialdeetatik 36k berretsi dutela Lisboako Onespenari buruzko Hitzarmena. Hitzarmen hori oraindik berretsi ez dutenei eskatzen diegu berrets dezatela luzatu gabe. Konpromisoa hartzen dugu Hitzarmen horretako printzipio guztiak abian jartzen direla egiaztatzeko eta legeria nazionaletan behar bezala sartzeko. Parte hartu duten herrialde guztiei eskatzen diegu ENIC/NARIC sareek identifikatu dituzten onspen-arazoak azter ditzatela. Plan nazionalak diseinatuko ditugu atzerriko tituluen onspenarekin lotutako prozesuen kalitatea hobetzeko. Plan horiek herrialde bakoitzak hurrengo ministro-konferentziarako egingo duen txosten nazionalaren zati izango dira. Lisboako Onespenari buruzko Hitzarmenaren testu subsidiarioen alde gaude eta agintaritza nazional guztiei nahiz parte hartu duten beste erakunde batzuei eskatzen diegu GHEEko bi herrialdek edo gehiagok emandako baterako tituluak onetsi ditzatela.

Guk uste dugu *kualifikazioen* esparru nazionalen garapena aukera bat dela bizitza osoan zeharreko ikaskuntza ondoren Goi-mailako Hezkuntzarekin elkartzeko. Goi-mailako hezkuntzako erakundeekin eta beste erakunde batzuekin lan egingo dugu aurretiko ikaskuntzen onspena hobetzeko, betiere, ikaskuntza informala edo ez-formala goi-mailako hezkuntzako programetarako sarbidetzat eta programa horietako elementutzat hartuta, ahal denean.

III. Etorkizuneko erronkak eta lehentasunak

Goi-mailako hezkuntza eta ikerketa

Nabarmendu behar dugu goi-mailako hezkuntza garrantzitsua dela ikerketa hobetzeko eta ikerketa garrantzitsua dela goi-mailako hezkuntzari laguntzeko gure gizarteetako garapen ekonomikoa eta kulturala ez ezik, kohesio soziala ere lortzeko. Badakigu egiturazko aldaketak egiteko eta ikaskuntzaren kalitatea hobetzeko ahaleginak ez direla ikerketa eta berrikuntza indartzeko ahaleginaren kaltetan gauzatu behar. Horregatik, azpimarratzen dugu ikerketa garrantzitsua dela, baita ikerketaren alorreko, kalitatea mantentzearen eta hobetzearen alorreko eta GHEEren lehiakortasuna eta erakargarritasuna indartzearen alorreko prestakuntza ere. Emaitza hobek lortzeko asmoz, onartzen dugu goi-mailako hezkuntzaren sektorearen eta bestelako ikerketa-sektoreen arteko sinergiak hobetu behar direla, bai gure herrialdeen artean, bai GHEEren eta Europako Ikerketa Esparruaren artean.

Helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da doktorego-mailako *kualifikazioak* bat etortzea GHEEko *kualifikazioen* esparru globalarekin, emaitzetan oinarritutako ikuspegia erabiliz. Doktorego-prestakuntzaren funtsezko osagaia jatorrizko ikerketaren bitartez ezagutzan aurrera egitea da. Kontuan hartuta premiazkoa dela doktorego-programa egituratuak izatea eta gainbegiratze eta ebaluazio gardenak izatea, ikusten dugu hirugarren zikloko lan-karga 3-4 urteko aldiari dagokiola, lanaldi osoz, herrialde gehienetan. Unibertsitateei eskatzen diegu berma dezatela beren doktorego-programek diziplinarteko prestakuntza sustatzea eta konpetentzia transferigarriak garatzea, lan-merkatu zabal baten premien arabera. GHEEren barnean ikerketa-arloko karrerak hasten dituzten doktoregoen kopurua orokorrean igotzea lortu behar dugu. Hirugarren zikloko programetan parte hartzen duten pertsonak ikasletzat hartzen ditugu, baina baita hasierako ikertzaitzat ere. Boloniako jarraipen-taldeari eskatzen diogu, baita European University Association elkarteari nahiz interesa duen edozein bazkideri ere, txosten bat egin dezala, jarraipen-taldearen erantzukizunpean, doktorego-ikasketen oinarritzko printzipioen etorkizuneko garapenari buruz, ministroei aurkezteko 2007an. Ahaleginak egin beharko dira doktorego-programen arauketa gehiegizkoa ez izateko.

Dimentsio soziala

Boloniako Prozesuaren dimentsio soziala GHEEa osatzen duen zatia da eta ezinbesteko baldintza GHEEa erakargarria eta lehiakorra izateko. Beraz, berriro hartzen dugu kalitatezko goi-mailako hezkuntza pertsona guztientzat eskuragarria izateko konpromisoa eta azpimarratzen dugu baldintza egokiak ezarri behar direla ikasleek beren ikasketak bukatu ahal izateko ikasle horien jatorri sozialarekin eta ekonomikoarekin lotutako oztoporik gabe.

Dimentsio sozialaren barnean gobernuek ikasleei, eta bereziki sozialki behartsuenak diren sektoreei finantzaren eta ekonomiaren alderdietan laguntzeko eta sarbide zabalagoa izatea errazteko orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak emateko hartutako neurriak sartzen dira.

Mugikortasuna

Onartzen dugu Boloniako Prozesuaren helburu nagusietako bat dela oraindik ere ikasleen eta langileen mugikortasuna parte hartzen duten herrialde guztien artean. Badakigu erronka asko daudela gauzatzeke; horregatik, berresten dugu konpromisoa hartzen dugula beken eta kredituen eramangarritasuna egoki denean errazteko baterako ekintzen bitartez, GHEEren barnean mugikortasuna errealitate bihurtzeko asmoz. Ahalegin gehiago egingo ditugu mugikortasunaren inguruko oztopoak gainditzeko; horretarako, bisak eta lan-baimenak emango ditugu eta mugikortasun-programetako partaidetza sustatuko dugu. Erakundeei eta ikasleei eskatzen diegu mugikortasun-programak guztiz erabiltzeko, eta programa horien barruan atzerrian egingo diren ikasketaldiak guztiz onestearen alde egiten dugu.

GHEEren erakargarritasuna eta munduko beste leku batzuekin lankidetzan aritzea

Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruak munduko beste leku batzuetara irekita egon behar du eta erakargarria izan behar du leku horientzat. Guztientzako hezkuntza lortzeko egingo dugun ekarpenak garapen jasangarriaren printzipioan oinarritu behar du eta jarraibideen garapenari buruzko nazioarteko lan honekin bat etorri behar du nazioz haraindiko goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bermatzeko. Berriro esaten dugu nazioarteko ikasketa-lankidetzan ikasketa-balioak izango direla nagusi.

Gure ustez, Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua goi-mailako sistemen laguntzaile bat da munduko beste eskualde batzuetan, eta ikasleen eta langileen arteko truke orekatua eta Goi-mailako Hezkuntzako erakundeen arteko lankidetzaren sustatzen ditu. Nabarmentzen dugu garrantzitsua dela kultura arteko ulermena eta errespetua. Espero dugu Boloniako Prozesuaren ulermena hobetzea beste kontinente batzuetan, aldaketa-prozesuetan izan ditugun esperientziak aldameneko eskualdeekin partekatuz. Azpimarratzen dugu ezinbestekoa dela elkarren interesekoak diren gaiei buruz hitz egitea. Gure ustez beharrezkoa da gurekin lankidetzan arituko diren eskualdeak identifikatzea eta eskualde horiekin ideiak eta esperientziak trukatzeko jarduerak areagotzea. Jarraipen Taldeari eskatzen diogu kanpoko dimentsiorako estrategia bat egin eta adostu dezala.

IV. Aurrerapenaren azterketa 2007rako

Jarraipen Taldeari eskatzen diogu balantzea egiten jarrai dezala eta zabal dezala, eta bere txostena aurkez dezala hurrengo ministro-konferentzia baino lehen. Espero dugu balantzea metodologia egoki batean oinarrituta egotea eta zikloen sistemaren, kalitate-bermearen eta tituluen eta ikasketaldien onespeneren arloetan jarraitzea, eta 2007. urterako praktikan jarrita egotea, neurri handi batean, bitarteko hiru lehentasun horiek.

Bereziki, honako alderdi hauetan espero dugu aurrerapena:

- f* Kalitate-bermeari buruzko estandarrak eta jarraibideak ENQAren txostenean praktikan jartzea;
- f* *Kualifikazio* nazionalen esparruak praktikan jartzea;
- f* Baterako tituluak ematea eta onestea, doktoregoa barne;
- f* Goi-mailako hezkuntzako ikaskuntza-ibilbide malguetarako aukerak sortzea, aurretiko ikaskuntza onesteko prozedurak barne.

Jarraipen Taldeari eskatzen diogu, halaber, langileen eta ikasleen mugikortasunari buruzko datu konparagarriak aurkez ditzala, baita parte hartzen duten herrialdeetako ikasleen egoera ekonomikoari eta sozialari buruzkoak ere, hurrengo ministro-konferentzian etorkizuneko balantzea eta txostena egiteko oinarri gisa. Etorkizuneko azterketa horrek dimentsio soziala izan beharko du kontuan, lehenago definitu denaren arabera.

V. 2010. urterantz

Boloniako Prozesuan izandako lorpenen oinarriari dagokionez, kalitatearen eta gardentasunaren printzipioetan oinarritutako Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparru bat ezarri nahi dugu. Gure ondare baliotsua eta gure kultura-aniztasuna kontserbatu behar ditugu eta ezagutzan oinarritutako gizarte bat lortzen lagundu behar dugu. Goi-mailako hezkuntzarako erantzukizun publikoaren printzipioa defendatzeko konpromisoa hartzen dugu, gizarte moderno konplexuen testuinguruan. Goi-mailako hezkuntza ikerketaren, hezkuntzaren eta berrikuntzaren arteko bidegurutzean kokatzen dela kontuan hartuta, Europako lehiakortasunerako gakoa ere bada. 2010. urtera hurbiltzen ari garen neurrian, konpromisoa hartzen dugu goi-mailako hezkuntzako erakundeek adostu diren aldaketak praktikan jartzeko beharrezkoa den autonomia izango dutela bermatzeko eta onartzen dugu beharrezkoa dela erakundeek finantzaketa jasagarria izatea.

Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua hiru ziklotan egituratzen da, maila bakoitzak ikaslea lan-merkatuarentzat prestatzeko, ikasleari konpetentzia gehiago emateko eta herritartasun aktiborako prestatzeko eginkizunak bete behar ditu aldi berean. *Kualifikazioen* esparru orokorra, kalitatea bermatzeko jarraibide eta estandar europar komunak multzoa eta tituluen eta ikasketaldien onspena ere GHEEren egituraren funtsezko ezaugarriak dira.

Berlinen ezarritako jarraipen-egituraren alde gaude, The Education International (EI) Pan-European Structure, the European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), eta Union of Industrial and Employers' Confederations of Europe (UNICE) Jarraipen Taldearen aholku-kide berri gisa.

Boloniako Prozesuak GHEEa ezartzeko bide ematen duenez, garapen jarraituari 2010etik haratago laguntzeko beharrezkoak diren estrategia egokiak planifikatu behar ditugu, eta Jarraipen Taldeari eskatzen diogu gai hauek azter ditzala.

Hurrengo Ministro Konferentzia Londresen egingo da 2007an.